

BARRIAK

GUDALDIA GOMUTATZEN

BATZARRA

Berrogei urtetako ixiltasunari abotsa etorri jakonean, eta illunaldia eguzkiaren izpiz zulotua izan danean, pitean-mitcan doguz aulako ta alako batzarraldiak leenak gogoratzeko, gorantzi zarrak barriztatzeko, lagun-arteko bazkari ta abar egiñaz.

REBELION DE LA SAL guda-saillekoak izan giñanok be, geure meza, batzarraldi anaikorra, besarkada bero ta agur txcratsuzko ordu gozoak izan genduzan, gure kapellau gotzon uts Aita Patxi zanaren eleizan, Deustu'ko Pasiotarretan.

NON GUDARI

Aitatu daroadan gudasailleko, bata-llaikoak, Ubide'n Otxandio'n Gorbe-inguruan, Zaldibar, Ermua, Etxano, Lemoaitzean eta Zamudio-i ngurumarietako lubakietan izan giñan.

Baiña batalloi aren *garaipen eta* artu ebazan ipurdikoak baiño beste zerbat esatera nator.

«Rebelion de la Sal» izenaren jatorria, zergaitia.

IRAULKETA-SUNDEA

XVII mende edo gizaldian, 1631-1634 arteko urteetan, iraulketa-sun dea * ta usaiña nabaritzen eta zabaltzen joian Europa'n.

España'n bertan be ba zan tutuan piper-mina ta egon-eziña.

Aldi artan España'ko IV Felipe errege ta Bizkai'ko jaun zanak, uric-antzuturik eukazan kutxai bete barri bat emon eta lege zarren aurkako

agindua iragarri eban: Gatz-baikuntza, gatzaren enbargua ta zergak' jartzea.

1 skegi egin ebazan iru, leku agirian; beste irurak garrotcz urkatu.

GATZ-LEGEAREN AURKA

Asarraldi gogorra ta latza sortu zan Felipe'k egindako lege barriaren aurka joteko, eta jo be bai.

Baiña Felipe'k berak garratzago jo ebazan lege zarraren alde eta gatzabaitzearen aurka jagi ziran sei aurrclarienak.

URKATUEN IZENAK

Emen dogu ba, Rebelion de la Sal zanaren kondairatxua eta urkatuak izan ziranen izenak: Morga Sarabia, Martin Otxoa Oxarabide, Juan de la Puente Urtusaustegi, Bizkargana anaiak eta Juan Otxoa Larrabaster.

LANDAJUELA'tar Andoni'k

GUDARIAREN ILLOBIAN

Emaztegai batek, oraindiño bere biotzaren berotasunaz, lora batzuk itzi dauz, otoitz bat oroimenez diñoala:

*Zure bizitza zan erein zenduna
amets bategaitik, zure arriaren alde,
zure bizitza zan, baiña ez zenkian pozaz
loratu zan ala ez.*

* *

*Lorak igartu dira, lengoko guda tokietan
eta orain golde-muturrak
zabaldut dabez erka barriak an bertan.*

* *

*Beste esku batzuk garia orain ereiten dabe
baste beso batzuk nire biotza estututzen.
Ta itzi dozun errian, beste amets-biziera
barriak asi dira loratzen.*

* *

*Zure bizitza emon zenduna zan,
zure odolak lur au gorritu eban,
zure bizitza zan, baiña ez zenkian pozaz,
azkenena loratu zala orde.*

(ARREGUI'tar Josu'k
gaztelaratik euskeratua)